



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024

BASQUE TEAM

1. Bekak eta Proiektuak Basque Team 2024 2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Bekak eta Proiektuak Basque Team 2024

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko martxoaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburuarena. Honen bidez, baimena ematen da eta oinarriak onartzen dira Fundación Basque Team Fundazioak bekak eman ditzan 2024an Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirola sustatzeko eta 2024an goi-mailako kirol-erakundeei laguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401616e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza edo beka eman ditu duela zenbait urtetik hona, euskal kirolariak behar bezala prestatzeko eta parte hartzeko mundu mailako nazioarteko kirol-lehiaketa garrantzitsuetan, eta, bereziki, programa olimpiko eta paralinpikoaren parte diren lehiaketetan. Kirolariei zuzenean emandako laguntzez gain, beharrezkotzat jo da kirol-erakundeei zuzendutako beste laguntza batzuk ezartzea. Kontuan izan behar da kirol-modalitate eta -espezialitate batzuen kasuan kirol-erakundeak direla kirolarien prestakuntza bideratzen dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

135 beka-eskaera egin ziren, eta eskatzaileetako 106k jaso dute beka. Era berean, proiektu bat aurkeztu zuten 8 federazioetatik, 6k dirulaguntza jaso zuten.

Aurrekontuan aurreikusitakoa: 1.068.750 €. Aurrekontua gauzatzea: 1.022.168 €.

Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina: helburuak betetzen ditu, eta, beraz, gure ustez, oso erabilgarria eta eragin handia du gizartean.

Desberdintasunak ezabatzeko, emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta berdintasuna sustatzeko ekintzak garatzen dituzten federazioen alde egin da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Bekak ematea	97	106
Teknifikazio Proiektuei laguntzak ematea	9	6